

# **ELSN-ko on line sareko katalogoaren parametrizazioa**

## **1.1 bertsioa**

2005eko urria

## AURKIBIDEA

<i>LIBURUTEGIAK/SUKURTSALAK</i> .....	3
<i>LIBURUTEGIEN KODEAK</i> .....	3
<i>LIBURUTEGI MULTZOAK SORTZEA</i> .....	3
<i>LIBURUTEGIEN 1. KODEA</i> .....	3
<i>LIBURUTEGIEN 2. KODEA</i> .....	4
<i>SUKURTSALEN KODEAK</i> .....	4
<i>EGUTEGIAK / ORDUTEGIAK</i> .....	5
<i>ALEAK</i> .....	<b>6</b>
<i>KOKAGUNEA</i> .....	6
<i>DESKRIBAPENA</i> .....	7
<i>ALE-MOTAK</i> .....	10
<i>ALEEN EGOERA</i> .....	13
<i>ALE-MOTAREN 1. KODEA</i> .....	13
<i>EUSKARRIA</i> .....	14
<i>JATORRIA</i> .....	16
<i>IRAKURLEAK</i> .....	<b>17</b>
<i>IRAKURLE-MOTAK</i> .....	17
<i>IRAKURLEAREN 1. KODEA</i> .....	18
<i>IRAKURLEAREN 2. KODEA</i> .....	18
<i>IRAKURLEAREN 3. KODEA</i> .....	18
<i>IRAKURLEAREN EZAUGARRIAK</i> .....	18

## ELSN-KO ON LINE SAREKO KATALOGOAREN PARAMETRIZAZIOA

ELSNko sareko katalogoaren parametrizazioa 2003ko abenduan egin zen parametrizazio-tailerrean adostu zen. Bertan proiektu honen lehen faseko 6 udal liburutegietako eta Liburutegi Zerbitzuko ordezkariak parte hartu zuten.

Erabakitako parametrizazioaren funtzionamendua egiaztatu ondoren, aldaketa batzuk egitea erabaki zen parametrizazio sistema berriaren beharretara bat etortzeko asmoarekin.

Jarraian, ELSNko on line sarearen behin betiko parametrizazioa zehazten da.

### LIBURUTEGIAK/SUKURTSALAK

#### Liburutegien kodeak

Liburutegi Zerbitzuak<sup>1</sup> ezarritako hiru zifra-ko kodea erabiliko da.

#### Liburutegi multzoak sortzea

Liburutegi guztiak lurralde historikoaren arabera taldekatuko dira.

KODEA	DESKRIBAPENA
ALA	Araba
BIZ	Bizkaia
GIP	Gipuzkoa

#### Liburutegien 1. kodea

Kode hau liburutegiak eskualdearen arabera taldekatzeko erabiliko da. Eskualdeen banaketa oso zehaztua ez dagoela kontuan izanik, eredu gisa EUSTATEk<sup>2</sup> erabiltzen duena hartuko da.

<sup>1</sup> ELSNko liburutegien eta sukurtsalen kodeak dokumentuan jasota dago. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuaren barne erabilerarako da.

<sup>2</sup> ELSNko liburutegien eta sukurtsalen kodeak dokumentuan jasota dago. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuaren barne erabilerarako da.

## Liburutegien 2. kodea

Kode honen bidez ELSNko udal liburutegiak biztanle kopuruaren arabera taldekatuko dira. Hautatutako biztanleen tarteak EUSTATEk erabilitakoetan oinarrituta daude.

KODEA	DESKRIBAPENA
1	< 500 biztanle
2	500-2.000 biztanle
3	2.000-5.000 biztanle
4	5.000-10.000 biztanle
5	10.000-25.000 biztanle
6	25.000-50.000 biztanle
7	> 50.000 biztanle

## Sukurtsalen kodeak

Orain arte ELSNrako erabili izan diren lau zifrako<sup>3</sup> kodeak erabiliko dira.

Oraingoz, sukurtsalen 1. kodea eta 2. kodea ez dira erabiliko.

---

<sup>3</sup> Ibid.

## Egutegiak / Ordutegiak

Liburutegi guztietarako egutegi bakarra erabiltzea erabaki da parametrizazioa errazteko asmoarekin, eta bertan hiru lurralde historikoetako jaiegunak jasotzen dira.

Herrietako jaien arazoa konpontzeko, mailegualdiaren aukera erabiliko da. Liburuzainak data aldatuko du bere herriko jaien arabera.

Asteburuetan ezingo dira dokumentuak itzuli, nahiz eta hainbat liburutegi (Gasteizkoak kasu) asteburuetan irekita dauden eta dokumentuen mailegu- eta itzultze-zerbitzua asteko egunetan bezala eskaintzen duten.

JAIEGUNA	DATA	LURRALDEA
Urteberri eguna	urtarrilaren 1a	EAE
Erregeen eguna	urtarrilaren 6a	EAE
San Jose eguna	martxoaren 19a	EAE
Ostegun Santua	apirilaren 8a	EAE
Ostiral Santua	apirilaren 9a	EAE
Pazko Astelehena	apirilaren 12a	EAE
San Prudentzio	apirilaren 28a	ARABA
Langileen eguna	maiatzaren 1a	EAE
Loiolako San Ignazio	uztailaren 31	GIPUZKOA eta BIZKAIA
Espainiako festa nazionala	urriaren 12a	EAE
Domu Santu eguna	azaroaren 1a	EAE
Espainiako Konstituzioaren eguna	abenduaren 6a	EAE
Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna	abenduaren 8a	EAE
Eguberri eguna	abenduaren 25a	EAE

## ALEAK

### KOKAGUNEA

Kokaguneak aleak zein gela edo gordailutan egongo diren zehazten du. Kokaguneak batzen saiatu gara katalogoak bateratzeko helburuarekin; baina horrek ez du esan nahi liburutegi guztiek kokagune guztiak izan behar dituztenik. Onena litzateke jada liburutegietan dauden kokaguneak Liburutegi Zerbitzutik erabaki direnetara egokitzea.

KODEA	DESKRIBAPENA
<b>AOR</b>	Helduentzako atala edo atal orokorra
<b>BER</b>	Erreferentzia - Helduak
<b>CER</b>	Erreferentzia - Haurrak eta gazteak
<b>DTT</b>	Txiki-txoko (0-4 urte)
<b>EHA</b>	Haurrentzako atala (5-7 urte)
<b>FHA</b>	Haurrentzako atala (8-12 urte)
<b>GGA</b>	Gazteentzako atala (+ 12 urte)
<b>HHE</b>	Bertako atala
<b>IEU</b>	Euskal atala
<b>JHE</b>	Hemeroteka
<b>KBI</b>	Bideoteka
<b>LFO</b>	Fonoteka
<b>MGO</b>	Gordailua
<b>NIG</b>	Interesguneak
<b>OER</b>	Erreserbako fondoa
<b>PMU</b>	Multimedia
<b>QBM</b>	Beste materialak
<b>RBU</b>	Bulego teknikoa
<b>SAB</b>	Aldi baterako liburutegia
<b>TKK</b>	Kokagune berezia
<b>UAZ</b>	Azaleztatzea
<b>VFA</b>	Alonso Rodríguez fondoa
<b>VBF</b>	Bordari Fondoa

<b>WFM</b>	Mourlane Michelena fondoa
<b>WIA</b>	Ignacio Arocena fondoa
<b>WLE</b>	Inaxio Artola fondoa
<b>WML</b>	Manuel Lekuona fondoa
<b>WTA</b>	Uxola Fondoa
<b>WTB</b>	Labaien Fondoa
<b>WSI</b>	Santos Intxausti Musika Eskola
<b>YBE</b>	Bekobenta Eskola
<b>YBI</b>	Berakruz Ikastola
<b>YLA</b>	Lea-Artibaiko Amankomunazgoa
<b>YLT</b>	Markina-Xemeingo beste bibliotekak
<b>YSA</b>	Saturnino de la Peña fondoa
<b>ZMP</b>	Plano-armairua

## Deskribapena

- **AOR - Helduentzako atala edo atal orokorra.** Helduei zuzendutako materialak, fikziozkoak eta fikziozkoak ez direnak, dauden liburutegiko gunea.
- **BER – Erreferentzia – Helduak.** Helduei zuzendutako erreferentziako materialak dauden liburutegiko gunea.
- **CER - Erreferentzia-Haurrak eta gazteak.** Soilik haurrei edota gazteei zuzendutako erreferentziako materialak dauden gunea.
- **DTT - Txiki-txoko (0-4 urte).** 0 eta 4 urte bitarteko haurrei zuzendutako materialak dauden gunea.
- **EHA - Haurrentzako atala (5-7 urte).** 5 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzendutako fikziozko materialak —eleberriak, ipuinak eta abar— dauden gunea.
- **FHA - Haurrentzako atala (8-12 urte).** 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako fikziozko materialak —eleberriak, ipuinak eta abar— dauden gunea.
- **GGA - Gazteentzako atala (+12 urte).** 12 urtetik aurrerako gazteei zuzendutako fikziozko materialak —eleberriak, ipuinak eta abar— dauden gunea.
- **HHE - Bertako atala.** Atal honetan herriari buruzko dokumentuak jasoko dira.
- **IEU - Euskal atala.** Euskal gaiei buruzko dokumentuak jasotzen dira. Liburutegi bakoitzak ezarri ahalko ditu irizpideak, euskal gaiez ulertzen duenaren gainean.

- **JHE – Hemeroteka.** Atal honetan aldizkako argitalpenak jasoko dira.
- **KBI – Bideoteka.** Bideoak, DVDak eta abar jasoko diren gunea. Liburutegi bakoitzak erabaki ahalko du haur eta helduentzako bideoak batera gorde ala ez.
- **LFO – Fonoteka.** Atal honetan soinu-grabazioak jasoko dira, musikakoak batez ere.
- **MGO – Gordailua.** Sarrera mugatuko kokagunea, bertan gordeko dira zaharkitutako dokumentuak, bikoiztutako aleak...
- **NIG – Interesguneak.** Hemen nobedadeak edota dokumentu interesgarriak jasoko dira, eta liburutegi bakoitzean toki berezia izango dute.
- **OER - Erreserbako fondoa.** Liburutegi bakoitzaren erreserbako funtsei zuzendutako atala; normalean sarbide mugatua du eta ezin daiteke mailegatu.
- **PMU – Multimedia.** Ordenagailuz irakur daitezkeen material guztiak jasotzen dituen kokagunea: disketeak, CD-ROMak, DVDak...
- **QBM - Beste materialak.** Lehen aipaturiko ataletan sartu ezin diren materialak — argazkiak...— jasotzen dira kokagune honetan.
- **RBU - Bulego teknikoa.** Errebisatzeko dauden dokumentuak jasoko dira atal honetan.
- **SAP - Aldi baterako liburutegia.** Kokaleku hau gehitu da denboraldi baten ohiko tokietatik kanpo egon daitezkeen materialak jasotzeko, hala nola bibliopiszinak, kaleko liburutegiak...
- **TKK - Kokagune berezia.** Liburutegi bakoitzean funts bereziei zuzendutako kokagunea, esaterako dohaintzak.
- **UAZ – Azaleztatzea.** Fondoak azaleztatzeko dauden bitartean erabiliko den kokagunea.
- **VFA - Alonso Rodríguez fondoa.** Soilik Irungo liburutegirako kokalekua eta Irunerako ikusgai dagoena.
- **VBF - Bordari Fondoa.** Soilik Oiartzungo liburutegirako kokalekua eta Irunerako ikusgai dagoena.
- **WFM - Mourlane Michelena fondoa.** Soilik Irungo liburutegirako kokalekua eta Irunerako ikusgai dagoena.
- **WIA – Ignacio Arocena fondoa.** Soilik Bermeoko liburutegirako kokalekua eta Bermeorako ikusgai dagoena.
- **WLE - Inaxio Artola fondoa.** Lezoko Udal Liburutegirako kokalekua eta Lezorako ikusgai dagoena soilik.

- **WML - Manuel Lekuona fondoak.** Oiartzungo Udal Liburutegirako kokalekua eta Lezorako ikusgai dagoena soilik.
- **WTA Uxola Fondoak.** Tolosako Udal Liburutegirako kokalekua eta Tolosarako ikusgai dagoena soilik.
- **WTB Labaien Fondoak.** Tolosako Udal Liburutegirako kokalekua eta Tolosarako ikusgai dagoena soilik.
- **WSI - Santos Intxausti Musika Eskola .** Mungiako Udal Liburutegirako kokalekua eta Mungiarako ikusgai dagoena soilik.
- **YBE - Bekobenta Eskola.** Markina-Xemeingo Udal Liburutegirako kokalekua, Bekobenta Eskolako fondoak biltzen dituena.
- **YBI - Berakruz Ikastola.** Markina-Xemeingo Udal Liburutegirako kokalekua, Berakruz Ikastolako fondoak biltzen dituena.
- **YLA - Lea-Artibaiko Amankomunazgoa.** Markina-Xemeingo Udal Liburutegirako kokalekua, Lea-Artibaiko Amankomunazgoko Droga Gaietako Prebentzio Zerbitzuaren fondoak biltzen dituena.
- **YLT - Markina-Xemeingo beste liburutegi batzuk.** Markina-Xemeingo Udal Liburutegirako kokalekua; Markina-Xemeingo Udalaren, Lea-Artibai Mendigoizale Taldearen, Markina-Xemeingo Guraso Elkartearen eta Markina-Xemeingo Xake Taldearen fondoak biltzen dituena.
- **YSA - Saturnino de la Peña fondoak.** Sestaoko Udal Liburutegirako kokalekua eta Sestaorako ikusgai dagoena soilik.
- **ZMP - Plano-armairua. Kartografiako materialak** —mapak, planoak eta abar— gordetzeko toki berezia.

## ALE-MOTAK

Kodeak ezartzean kontuan izan da material-mota batetik, eta, bestetik, zein motako erabiltzailei zuzendua dagoen. Horrela, bereizi ahalko da heldu edota haurrentzako monografiaren artean; heldu eta haurrentzako ikus-entzunezko materialaren artean eta abar. Horrek, hainbat mailegu-politika egitea ahalbidetzen du.

KODEA	DESKRIBAPENA
AMO	Monografiak - Helduak (M)
BMO	Monografiak – Haurrak eta gazteak (M)
CMO	Monografiak (EM)
DER	Erreferentzia - Helduak (EM)
EER	Erreferentzia - Haurrak eta gazteak(EM)
FAS	Argitalpen seriatuak - Helduak (EM)
GAS	Argitalpen seriatuak – Haurrak eta gazteak (EM)
HIK	Ikus-entzunezkoak - Helduak (M)
IIK	Ikus-entzunezkoak – Haurrak eta gazteak (M)
JIK	Ikus-entzunezkoak (EM)
KOF	Ordenagailuko fitxategiak - Helduak (M)
LOF	Ordenagailuko fitxategiak – Haurrak eta gazteak (M)
MOF	Ordenagailuko fitxategiak (EM)
NEN	Soinu-grabazioak - Helduak (M)
OEN	Soinu-grabazioak – Haurrak eta gazteak (M)
PEN	Soinu-grabazioak (EM)
QBL	Bertako fondoa (M)
RAN	Antzinako fondoa (EM)
SLI	Literatura grisa (EM)
TLG	Lege-gordailua (EM)
UMP	Mapak eta planoak (EM)

## Deskribapena

Jarraian, material-mota bakoitza deskribatzen da aleen datuak sartzerakoan irizpideak bateratzeko xedearekin.

- **AMO - Monografiak-Helduak (M)**. Seriatuak ez diren dokumentu inprimatuak dira, testu osoa liburuki batean edo gehiagotan argitaratua dutenak eta helduei zuzendutakoak. MAILEGATU DAITEKE
- **BMO - Monografiak-Haurrak eta gazteak (M)**. Seriatuak ez diren dokumentu inprimatuak dira, testu osoa liburuki batean edo gehiagotan argitaratua dutenak eta haur eta gazteei zuzendutakoak. MAILEGATU DAITEKE
- **CMO – Monografiak (EM)**. Heldu, haur eta gazteei zuzendutako monografiak. EZIN DAITEKE MAILEGATU.
- **DER – Erreferentzia - Helduak (EM)**. Helduei zuzendutako erreferentziako dokumentuak edota materialak: atlasak, entziklopediak, hiztegiak... EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **EER – Erreferentzia – Haurrak eta gazteak (EM)**. Haur eta gazteei zuzendutako erreferentziako dokumentuak edota materialak: atlasak, entziklopediak, hiztegiak... EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **FAS - Argitalpen seriatuak - Helduak (EM)**. Helduei zuzendutako argitalpen seriatuak edota aldizkako argitalpenak. EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **GAS - Argitalpen seriatuak – Haurrak eta gazteak (EM)**. Haur eta gazteei zuzendutako argitalpen seriatuak edota aldizkako argitalpenak. EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **HIK Ikus-entzunezkoak - Helduak (M)**. Hemen jasotzen dira helduei zuzendutako filmak eta bideo-grabazioak —argitaratutako euskarria edozein delarik ere: VHSa, DVDa...—, eta, proiektatzeko material grafikoa, hala nola, diapositibak, gardenkiak.... MAILEGATU DAITEKE
- **IHK - Ikus-entzunezkoak – Haurrak eta gazteak (M)**. Hemen jasotzen dira haur eta gazteei zuzendutako filmak eta bideo-grabazioak —argitaratutako euskarria edozein delarik ere: VHSa, DVDa...—, eta, proiektatzeko material grafikoa, hala nola, diapositibak, gardenkiak... MAILEGATU DAITEKE
- **JIK - Ikus-entzunezkoak (EM)**. Hemen jasotzen dira heldu, haur eta gazteei zuzendutako filmak eta bideo-grabazioak —argitaratutako euskarria edozein delarik ere: VHSa, DVDa...—, eta, proiektatzeko material grafikoa, hala nola, diapositibak, gardenkiak... EZIN DAITEKE MAILEGATU.
- **KOF – Ordenagailuko fitxategiak - Helduak (M)**. Hemen jasotzen dira irakurtzeko edota kontsultatzeko ordenagailu bat behar duten helduei zuzendutako dokumentu guztiak, euskarria edozein delarik ere: disketea, CD-ROMa... MAILEGATU DAITEKE

- **LOF – Ordenagailuko fitxategiak – Haurrak eta gazteak (M).** Hemen jasotzen dira irakurtzeko edota kontsultatzeko ordenagailu bat behar duten haur eta gazteei zuzendutako dokumentu guztiak, euskarria edozein delarik ere: disketea, CD-ROMa... MAILEGATU DAITEKE
- **MOF – Ordenagailuko fitxategiak (EM).** Hemen jasotzen dira irakurtzeko edota kontsultatzeko ordenagailu bat behar duten heldu eta hurrei zuzendutako dokumentu guztiak, euskarria edozein delarik ere: disketea, CD-ROMa... EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **NEN – Soinu-grabazioak-Helduak (M).** Hemen sartzen dira helduei zuzendutako soinu-grabazioak, musikakoak izan edo ez; eta, euskarria edozein delarik ere: CDa, kasetea, biniloa... MAILEGATU DAITEKE.
- **OEN – Soinu-grabazioak – Haurrak eta gazteak (M).** Hemen sartzen dira haur eta gazteei zuzendutako soinu-grabazioak, musikakoak izan edo ez; eta, euskarria edozein delarik ere: CDa, kasetea, biniloa... MAILEGATU DAITEKE
- **PEN – Soinu-grabazioak (EM).** Hemen sartzen dira heldu, haur eta gazteei zuzendutako soinu-grabazioak, musikakoak izan edo ez; eta, euskarria edozein delarik ere: CDa, kasetea, biniloa... EZIN DAITEKE MAILEGATU.
- **QBL - Bertako fondoa (EM).** Herriari buruzko gaiak jorratzen dituzten dokumentuak jasotzen dira. MAILEGATU DAITEKE
- **RAN - Antzinako fondoa (EM).** Nahiz eta zorrozki antzinako funtsetarako ezarritako baldintzak ez bete —eskuizkribuak, inkunableak, 1801. urtea baino lehenagoko liburuak—, hainbat arrazoiengatik —bitxitasuna, gaia...— antzinako funts gisa har daitezke. EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **SLI - Literatura grisa (EM).** Hemen jasoko dira argitaratu ez diren dokumentu espezializatuak, hala nola tesiak, txosten teknikoak, estatistikak... EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **TLG – Lege-gordailua (EM).** Kokagune hau soilik lege-gordailuko fondoak kudeatzen eta katalogatzen dituzten erabiltzaileek erabili ahalko dute. EZIN DAITEKE MAILEGATU
- **UMP – Mapak eta planoak (EM).** Hemen material kartografikoa jasoko da: mapak, planoak, etab. EZIN DAITEKE MAILEGATU

## ALEEN EGOERA

absysNET-eko 1.1 bertsioan, parametro hau libre geratzen da.

## ALE-MOTAREN 1. KODEA

Kode hau dokumentuaren hizkuntza bereizteko erabiliko da maileguen estatistikei begira. Hizkuntzen kodeak ezartzeko ISO 639-2-1998 araua jarraitu da, deskribapen bibliografikoetan eta autoritateetan bezala.

KODEA	DESKRIBAPENA
ARA	Arabiera
BAQ	Euskara
BAV	Elebiduna (euskara-gaztelania)
BAX	Euskara + beste hizkuntza(k)
BAZ	Gaztelania + beste hizkuntza(k)
BES	Beste hizkuntza batzuetan
ENG	Ingelesa
FRE	Frantsesa
GER	Alemana
ITA	Italiera
SPA	Gaztelania

## EUSKARRIA

Aleen euskarriaren kodea erabiltzea erabaki da dokumentuen euskarri-mota zehazteko, datu interesgarriak baitira azterketa estatistikoei begira.

KODEA	DESKRIBAPENA
AIN	Inprimatua
BCD	CD
CVH	VHS
DDV	DVD
DET	BETACAM
DUM	U-MATIC
EKA	Kasetea
FDI	Disketea
GDI	Diapositiba
HBI	Biniloa
IMI	Mikroformak
JAR	Argazki-negatiboa
KAR	Argazki-positiboa
MAP	Mapak
PLA	Planoak

### Deskribapena

- **AIN – Inprimatua.** Mekanikoki egindako liburu, liburuxka edota orri solteak jasoko dira.
- **BCD – CD.** Digitalki grabaturiko disko optikoa eta laser bidez irakurtzen dena.
- **CVH – VHS.** Zinta magnetikoan egindako bideo-grabazioa VHS formatuan.
- **DDV – DVD.** Disko ez malgua informazio multimedia digitala duena, nagusiki soinua eta irudiak.
- **DET – BETACAM.** Hazbete erdiko formatua du, egun bideoko zinta masterrak egiteko gehien erabiltzen dena.

- **DUM – U-MATIC.** Formatu hau 70ko hamarkadaren hasieran sartu zen, eta hiru laurdeneko hazbeteko (19 mm) zabalerako zinta du kartutxo baten barruan, eskuarki kasete zinta deitua.
- **EKA – Kasetea.** Plastikozko kaxa, barruan soinua grabatzeko eta erreproduzitzeko zinta magnetikoa duena.
- **FDI – Disketea.** Disko magnetiko malgua, non ordenagailuz irakurtzeko informazioa gordetzen den.
- **GDI – Diapositiba.** Euskarri garden batean inpresionatutako argazki positiboa, normalean pantailan proiektatzen dena.
- **HBI - Biniloa .** Polibiniloazko plaka zirkularra, non ildoen bidez soinua grabatzen diren eta gero disko-jogailu batean erreproduzitu daitekeen.
- **IMI – Mikroformak.** Eskuz idatzitako edo inprimatutako testu batetik ateratako mikroirudi bidimentsionalak jasotzen dituen pelikula-orri zapala. Denak neurri berdinekoak dira eta goitik behera eta ezker-eskuin jarrita azaltzen dira. Goiburuan, begiratu hutsera irakur daitezkeela, erreproduzitutako testua identifikatzeko datuak izan ditzake inprimatuta.
- **JAR – Argazki-negatiboa.** Argazki-materialen gaineko irudia. Jatorrizko argiak guztiz alderantziz —hau da, argiuneak ilun azaltzen direla eta ilunguneak, aldiz argi— jasotzen dituen kamera batean sortzen dira honelako irudiak eta hainbat kopia egin daitezke argazki-materialen gainean.
- **KAR – Argazki-positiboa.** Erreakzio kimikoz lorturiko estampa, egoki prestatutako gainazaletan.
- **MAP – Mapak.** Materialen edo lurraren edo zeruko beste elementu baten gainazalaren edo ezaugarri abstraktuen aurkezpena, normalean eskalan eta gaizanal lau batean.
- **PLA – Planoak.** Plano horizontaleko posizio erlatiboen marrazkia erakusten duena (adibidez, eraikin bateko zatien posizio erlatiboak; paisaiaren diseinua; altzairuen kokagunea gela edo eraikin batean; plano militar edo ontzigintza-plano baten aurkezpen grafikoa).

## JATORRIA

Hemen liburutegietako fondoak liburutegiaren parte izatera nola heldu diren zehazten da. ELSNrako honako eskuratze-motak ezarri dira:

KODEA	DESKRIBAPENA
<b>AER</b>	Erosketa
<b>BTR</b>	Trukea
<b>CEU</b>	Euskarri orokorra
<b>DUD</b>	Udala
<b>EDO</b>	Dohaintza (partikularrena)
<b>FLG</b>	Lege-gordailua
<b>GEJ</b>	Eusko Jaurlaritza
<b>HAL</b>	Aldundia
<b>IBB</b>	Beste batzuk

### Deskribapena

- **AER - Erosketa.** Hemen erositako material guztiak jasoko dira, aurrekontuko partiden jatorria edozein delarik ere.
- **BTR – Trukea.** Trukean eskuratutako dokumentuak jasoko dira: beste liburutegietatik, udaletatik, erakundeetatik...
- **CEU - Euskarri Orokorra.** Eusko Jaurlaritzak urtero bidaltzen duen euskarri orokorreko aleak jasoko dira.
- **DUD – Udala.** Udalaren bidez dohaintzan eskuratutako aleak jasoko dira.
- **EDO – Dohaintza.** Partikularrek dohaintzan emandako aleak jasoko dira
- **FLG – Lege-gordailua.** Lege-gordailuaren bidez eskuratutako aleak jasoko dira.
- **GEJ - Eusko Jaurlaritza.** Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoek doan emandako aleak jasoko dira, euskarri orokorra izan ezik.
- **HAL – Aldundia.** Aldundien bidez doan eskuratutako aleak jasoko dira.
- **IBB - Bestelako sarrerak.** Goian aipatu ez diren organismoek emandako materialak jasoko dira hemen.

## IRAKURLEAK

Liburutegi publikoetan egon daitezkeen irakurle-motak zehazten dira.

### Irakurle-Motak

KODEA	DESKRIBAPENA
<b>AHE</b>	Heldua
<b>BHA</b>	Haurra
<b>DER</b>	Erakundea
<b>EBL</b>	Beste liburutegi batzuk
<b>MHI</b>	Montehermoso-ko irakurlea

- **AHE – Heldua.** 14 urtetik aurrera.
- **BHA – Haurra.** 0-13 urte bitarteko haurrak.
- **DER – Erakundeak.** Erakunde izaera (elkartekak, ikastetxeak, etab.) duten motako erabiltzaileei zuzendua.
- **EBL - Beste liburutegi batzuk.** Erabiltzaile-mota honen asmoa liburutegien arteko mailegua erraztea da eta gainerako liburutegiei zuzendua dago.
- **MHI – Montehermoso-ko irakurlea.** Irakurle-mota hau soilik Montehermoso<sup>4</sup> Zentro Kulturaleko erabiltzaileek erabiltzeko da.

---

<sup>4</sup> Montehermosoko mediatekako maileguaren eta irakurleen ezaugarriak direla-eta, irakurle berezia sortu da zentro horretarako.

### Irakurlearen 1. kodea

Kode hau sexua jakiteko erabiliko da.

KODEA	DESKRIBAPENA
AGI	Gizona
BEM	Emakumea
CEA	Besterik

### Irakurlearen 2. kodea

Kode hau irakurlearen okupazioa jakiteko erabiliko da.

KODEA	DESKRIBAPENA
APR	Profesionala
IKA	Ikaslea
ETX	Etxeko lanak
ERR	Erretiratua
EBB	Beste batzuk

### Irakurlearen 3. kodea

Sareko irakurleetatik IZENPE txartela nortzuk duten jasotzeko erabiltzen da.

KODEA	DESKRIBAPENA
IZE	IZENPE

### Irakurlearen ezaugarriak

Oraingoz libre dago. Ez da inolako informaziorik ematen.